



## Kobrearen eta haren konposatuen hondakinen gehieneko mugen berrikuspena

EFSAk gaur egun Europar kobre-konposatuentzat ezarrita dauden hondakinen gehieneko mugak (LMR) berrikusi ditu. Konposatu horiek printzipio aktibo gisa erabiltzen dira produktu fitosanitarioetan. Berrikuspen hori egiteko, kobre-konposatuen hondakinen presentzia kuantifikatu du landareetan, produktu prozesatuetan, labore eta ganaduetan eta kontsumitzeko urean.

Esposizio-iturri horiek guztiak aintzat hartuta, eta kontuan hartuta kobrea berez ingurumenean ere badagoela, arriskuen ebaluazio bat egin da eta beste LMR batzuk proposatu dira labore batzuentzat.

EFSAk esposizio-bide nagusiak identifikatu ditu, eta hainbat neurri aztertu ditu murrizteko. Azterketa horren arabera, honako elikagai hauetan inplementa litezke arriskua murrizteko neurri eraginkorrak: **letxuga** (eguneko ingesta onargarriaren -IDA- % 8,2), **tomateak** (IDAREN % 5,1), **ardo-mahatsak** (IDAREN % 3) eta **patatak** (IDAREN % 3,6). *Patatentzat LMR zorrotzago bat proposatu da, eta letxugentzat, tomateentzat eta ardo-mahatsentzat, berriz, gaur egungo nekazaritzako praktika onak daude indarrean oraindik.*

Eginiko arriskuaren ebaluazioan arrisku kroniko posible bat identifikatu zuten pertsona kontsumitzaile batzuentzat, baina, informazio garrantzitsu bat falta denez, ebaluazio hori adierazgarria baino ez da, eta arrisku-kudeatzaileek hobeto aztertu beharko dituzte ebaluazio horretan oinarrituz egindako LMR proposamenak. Zehazki, biztanleria talde batek (OME taldeko B dieta) IDAREN % 109ko esposizio kronikoa zuen. Gainerako dieta guztietarako, esposizioa IDAREN azpikoa izan zen: IDAREN % 14 eta % 86 artekoa.

Review of the existing maximum residue levels for copper compounds according to Article 12 of Regulation (EC) No 396/2005 ([http://www.efsa.europa.eu/sites/default/files/scientific\\_output/5212.pdf](http://www.efsa.europa.eu/sites/default/files/scientific_output/5212.pdf))

